

Ibon Sarasola, Gorazarre*

Handia da, zentzurik onenean gainera, Ibon Sarasolaren itzal akademikoa: azkeneko hamarkadetan, alde batera edo bestera, euskararen ikerketaz arduratu garen guztiok jo behar izan dugu EHUko ikertzaileak argitaratu dituen lanak behin eta berriz ikustera eta kontsultatzera. Ongi dakigunez, erraldoia da Ibonek bere bizitzan zehar egin duen lana. Erraldoia, berezia eta ordu askoren emaitza. Lexikografo gisa ezagutzen du batez ere jendeak, lan oparoa egin baitu arlo horretan: Euskaltzaindiarekin aritu da urte luzeetan, erakundearen buru Villasante zela lehenik, eta Haritxelar geroago. Urte haietan etengabe egin zuen lan bere etxean eta Bartzelonako Unibertsitatean. Handik Euskal Herrira itzuli zelarik EHUko Euskara Institutuan eskaini zitzaion abaroa, eta institutu horretan dihardu lanean gaur egun, denen zorionerako.

Mitxelenak eta biek abian jarri zuten *Orotariko Euskal Hiztegia* nekez izango genuen gure artean, Sarasolak ordurik gabeko bere lana, prestakuntza teknikoa eta jakituria eskaini izan ez balizkio. Sarasolak bere lan taldea esku leunez baina gaitasunez hogeitertan zehar zuzentzen jakin izan ez balu. Ibonek beti izan du garbi lana non egin: askatasuna, errespetua, duintasuna eta zinezko estimua eskaini zaion tokian. Hola jarri ditu bere lan erraldoiak euskaltzaleen esku. Gaur egun euskara modernoak inoiz izango duen hiztegi handien, zehatzen eta oparoena (*Eguno Euskararen Hiztegia*) amaitzen ari da, lau letarren faltan, EHUko Euskara Institutuan. Bi lan horiek, euskararen historiarekin lotzen gaituena lehena, XXI. mendeari dagokiona bigarrena, euskal espezialisten ondoko urteetako etorkizuna markatuko dute, zalantza gabe. Euskararen gainean egin den ikerkuntza ezin da ulertu Sarasolaren lanak kontuan hartzen ez badira.

* Liburu honen argitalpena EHUko Euskara Institutuak bultzatu du.

Baditu, jakina, beste hainbeste hiztegi, liburu honetan biltzen ditugun lanetan modu batera edo bestera aipatzen direnak: ez da gure inguruan idazlerik, Ibonen lana behin eta berriz kontsultatu gabe euskaraz idaztera ausartzen denik. Hori —ez da gutxi hori—, zor diogu Ibon Sarasolari. Baina EHUKo irakasleak izan du aukera bere bizitzan beste arlo batzuetako lanak egiteko ere. Literaturaz mintzatu da, eta literatura egin du. Hasiera haietan, inor gutxi horretaz arduratzen zen urte haietan, sintaxi lanak ere egin zituen, gaur behin eta berriz han-hemenka aipatuak ikusten ditugunak. Hola, urteetan zehar Sarasolak egindako lanek gure hizkuntzaren ajeak sendatzeko ez bada, pixka bat arintzeko bederen balio izan dute. Eusko Jaurlaritzak horregatik guztia-gatik deliberatu zuen Ikerketa saria ematea 2011. urtean eta horrek bultzatu gaitu gu ere gorazarre liburu honen prestatzera.

Pentsatu genuen, hasteko, Ibonekin zuzenean edo zeharka zerikusia izan duten ikertzaile eta irakasleekin mintzatu behar genuela, gure proposamenak nolako harrera zuen ikusteko horrela. Baiezkoak berehala etorri zitzaizkigun, ordu batzuetako epean, dozenaka. Eta mugak jarri behar izan genituen orduan: mugak parte hartze aldetik, guk aurretik egindako zerrendetan ageri ez ziren bat baino gehiago, hau prestatzen ari ginela jakinik, gurekin harremanetan jarri baitziren, haiek ere zerbait idatzi nahi zutela gaztigatuz. Ezin zen, ordea, baiezkoa eman, bestela liburuaren neurria kontrolaezin bihurtuko bailitzateke. Arrazoi beragatik, baiezkoa eman zutenei ere muga itxiak jarri zitzaizkien: egile batek baino gehiagok ikusi du nola itzuli zaion lana atzera, orrialde batzuk ken zitzaizkien eskatuz, argitalpenaz arduratu garen editoreok markatu baldintzak ez errespetatzeagatik. Segur gaude, hortaz, hemen idatzi duten gehienek nahi luketela zerbait gehiago esan, baina beste toki batean beharko du izan, aski handia gelditu baita liburua bestela ere. Ez daude hemen, hala ere, egileen artean, nahi luketen guztiak. Hasieratik abisatu ziguten zenbaitek ezinezkoa gertatzen zitzaiela proiektuan parte hartzea. Beste kasu batzuetan, izena eman zutenetik gutxi batzuek, arrazoi bat dela, beste dela, betiere haien borondatearen kontra, ezin izan dute hitza bete. Eta izan dira epea gainditua zelarik ere lan eskaintzekin hurbildu zitzaizkigunak, baina ezinezkoa gertatu zaigu baietza ematea. Zernahi gisaz, garbi utzi digute batzuek eta besteek, guk haien izenak hemen jartzea¹ nahi luketela.

¹ Mikel Agirreazkuenaga (UPV/EHU), Xabier Altzibar (UPV/EHU), Xabier Artiagoitia (UPV/EHU), Ignacio Bosque (Universidad Autónoma de Madrid), Teresa Cabré (Universitat Pompeu Fabra), Klara Ceberio (Elhuyar), Battittu Coyos (UPPA – Univ. Michel de Montaigne), Agurtzane Elordui (UPV/EHU), Elixabete Etxeberria (Elhuyar), Isabel Etxeberria (itzultzailea), Teresa Español (Universitat de Barcelona), Inés Fernández-Ordóñez (Universidad Autónoma de Madrid), Josu Landa (Ametzagaña), Alberto Lopez Basaguren (UPV/EHU), Jesus Mari Makazaga (UPV/EHU), Alfonso Mujika (Elhuyar), Ainara Ondarra (Elhuyar), Jon Ortiz de Urbina (Deustuko Unibertsitatea), Lourdes Otaegi (UPV/EHU), Rosa Miren Pagola (Deustuko Unibertsitatea), Mikel Santesteban (UPV/EHU), Ramon Saizarbitoria (idazlea), Sebastià Serrano (Universitat de Barcelona), Sahats Ugartetxea (Elhuyar) eta Adam Zawiszewski (UPV/EHU).

Berrogeita hamaika kapitulu ditu liburuak: horietako bakoitzaren atzean idazle bat dago, gutxienez, eta kasuan-kasuan, idazle bat baino gehiago ere egon daiteke, bi, hiru, lau. Idazle horietatik batzuei idazle deritzegu idazketari emanak bizi direlako, idazte hutsak jatera nekez ematen badu ere. Idazle ez deritzegun gainerako egileetatik gehien-gehienak hizkuntzalariak gara. Hizkuntzalaritza dugu bizibide eta hizkuntzara begirakoa da gure lana. Unibertsitatean ari gara lanean gehienok, baina ez guztiak.

Hainbeste istorio jasotzen ditugu hemen: baten batek Akitaniara garamatza eta hurrengoak beharbada goi-nafarrera zaharrera; mendebaldera, ekialdera, Parc Güellera, eta urrutira ere bai, wixárikaren lurraldera; hirurogeietara itzul gaitezke, edo mundu zaharrera, edo zaharragora, XVIII. mendera, aitzineuskarara. Bidaia Arestiren eskutik egin daiteke, edo Coromines eta Tovarrekin batera, nahiago bada. Gerra Zibila eta ondorenak. Hitzaren barne egitura arakatu daiteke, izen-elkarketa (*uso-kolunbak*) edo kokapen aditzak (*giltzaperatu, giltzapetu*); *Linschmann-Aresti legea*; diskurtso markatzaileak; bokatiboa; determinatzaile sintagma, adjektiboak eta elipsia; euskararen estandarizazioa, euskara batua; Euskal Ikasketak hemen eta han...

Badira gutarik hizkuntzari iraganetik orainerako ardatzean begiratzen diotenak, edo iraganetik iraganeragora; badira egungo hizkuntza lehenesten dutenak, denbora iragaiteak ukituko ez balitu bezala, zorionekoak; testuekin jardungo dute batzuek, eta testuen beharrik ez besteek; testuen artean, literatura nahiago zenbaitek, eta literaturatik poesia; batzuek hiztegiak egiten dituzte, hiztegi teknikoak, hiztegi historikoak, hiztegi batua, hiztegi elebidunak; bestetuek hizkuntza arakatzeko teknologia bideak urratzen dituzte. Eta abar.

Editore lanak egitean joan-etorriak gertatzen dira idazleekin. Arlo akademikoetako lanetan munduan zehar gertatzen den gisan, gure iritziak eta usteak jakinarazi dizkiegu egileei, haiek idatzitako zerbait guk jarritako irizpideekin bat ez zetorrenean. Irizpideak, oro har, onartu dira azken idatzaldian, baina batzuetan, hala ere, idazleak nahiago izan du bereak mantendu aldatu gabe. Halakoetan, egilearen beraren nahia errespetatu dugu, gure iritzia gorabehera.

Zernahi gisaz, liburua abiatzean eta prozesu guztian lagundu diguten hiru laguni gure esker ona adierazi nahi diegu hemen: lehenik, Josu Landari, liburu honetan parte hartu duten zenbait idazlerekin lotura egiteko bidea zabaldu baitigu; bigarrenik, Itziar Adurizi, Kataluniarekiko katebegiari; eta hirugarren eta azkenik, Ane Berrori, kapituluei formatua ematean eta formatu kaos orokortuan kosmosa aurkitzen lagundu baitigu.

Badakigu, amaitzeko, pertsona bakoitzak bere arrazoiak izaten dituela bide bat nahiz bestea hartzera eramaten dutenak. Ez dakigu zehatz-mehatz zerk eraman zuen Ibon Sarasola *Orotarikora*, hiztegegintzara, baina adiskideok entzun diogunez, Koldo Mitxelena bere maisu handiari zion leialtasunak eraman omen zuen Ibon hiztegieta murgiltzera. Mesede egin digu horrek, zalantza gabe. Hemengo egile bakoitza ere zerbaitek eraman du hiz-

kuntzalaritzara, gramatikara, hiztegi-gintzara, literaturara, poesiara, beste norabait eraman beharrean. Alabaina, liburu honetan gure letrak etzatera ekarri gaituena gauza bera da: leialtasuna.

Ibon Sarasolari, leialtasunez.

Euskal Herrian, 2014ko abenduaren 1ean.

BEATRIZ FERNÁNDEZ eta PELLO SALABURU

UPV/EHU, Euskara Institutua